

Asisko gutuna

2023ko otsaila

4. printzipioa. Bidea elkarrekin egin, anaitasunez bizi

172. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Anaidiko bizitza, komunitatekoa, familiakoa, adiskideen artekoa, lehenbizi maitatuak izan gare-lako gertatzen da. Mota guztietako mehatxuen erdian, maitasunaren ziurtasun eta apustu horrek eusten du elkarte.

Gogoetarako gaia

Inozoak ez; bai itxaropentsuak

Zalantzarik gabe, elkarbizitza, adiskide eta anai-arreben arteko harremanak etengabeko lana dira. Beti esan izan da bizikidetzera eraiki egiten dela. Lanari ekin behar zaio, beste batzuekin bizi nahi izan behar da, komunitatea proiektatu behar da, denok gustura eta zentzuz elkarrekin bizi ahal izateko. Beti bizi izan dugu era askotara gauzatzen den amets hau: familia, anaidia, historia pertsonalari argi egiten dioten lagun zaharrak...

Elkarte baten irrika hori, elkarbizitza pozgarri baten irrika, bizitzan onartua, babestua eta gozotasunez hartua izanaren esperientzian oinarritzen da. Maitatua izan ez denak ez daki zer den maitatzea. Izaki bat jaiotzen denean, lehen esperientzia gozo-gozo zaindua izatea da, hori horrela gertatzeko ezer egin gabe. Oinarrizko esperientzia da hau bizitzan aurrera itxaropentsu egin ahal izateko. Bizipen horrek bizitzaren etapa desberdinetan murgiltzera bultzatzen gaitu, talde-harremanera, harreman pertsonalera, baita

Jainkoarekiko harremanera ere. Oinarrizko bizipena mehatxagarria eta etsigarria balitz, inoiz ez ginateke gauza berrietara irekiko.

Baina ez gaitezen inozoak izan. Elkarte bizitza, bere osotasunera deitua egon arren, porrotak mehatxatzen du etengabe. Eta porrot hori elkarteko kideen kanpoko eta barruko faktoreek eragin dute. Maiz gertatzen da bete nahi dugun elkarbizitzaren ametsa zapuztu egiten dela eta bihotzean sartzen zaigula elkarte lortu ezina denaren susmoa.

Elkartearen ametsa Jainkoaren lehenengo maitasunaren esperientzian bakarrik oinarritu ahal izango da. Porrot guztietatik harago, anaia-arrebaren bihotza, atsekabe guztiak gorabehera, konfiantza frogatu honek sostengatuko du: Jainkoaren maitasuna gure eta senideen bekatu guztien aurrekoa eta indartsuagoa dela. Inozoak ez, itxaropentsuak bai.

Biblia pasartea: Kol 3,12-15

Jainkoak maitatu eta bere herri santu izateko aukeratu zaituztenez gero, jantz zaitezte bihozberatasunez, ontasunez, apaltasunez, otzantasunez, pazientziaz. Izan eraman oneko elkarrekin eta barkatu batak besteari, inork inoren aurka zerbait balu. Jaunak barkatu zizuen bezala, barkatu zuek ere elkarri. Eta guztien gainetik, jantz zaitezte maitasunez, hau baita elkartasun betearen lokarria. Kristoren bakea izan bedi nagusi zuen bihotzetan, horretara deitu baitzaituzte Jainkoak gorputz batean elkartuz. Eta izan zaitezte esker oneko.

Frantziskotar espiritualtasuna

“Eta beste mila aldiz zeure begi aurrean bekatu egingo balu ere, maita ezazu ni neu baino gehiago, horrela Jaunarengana erakar dezazun; eta izan erruki beti horrelakoak... Gainerakoan, bekatu larriei buruz mintzo diren Erregelako atal guztiekin, Jauna lagun eta anaien kontseiluz, atal bat bakarria egingo dugu, gisa honetara: «Anaiaren batek, etsaiak zirikatutik, bekatu larria egiten badu, obedientziaz behartua bego goardianoagana jotzera.

Eta haren bekatuaren berri dakiten anaiak ez bezate lotsaraz, ez hartaz gaizki esan, baizik eta erruki handia izan biezaiote eta beren anaiaren bekatua isil-isilean gorde bezate, zeren ez baitute osasundunek behar sendagilea, gaixoek baizik. Era berean, anaiok obedientziaz behartuak bitez hura bere kustodioagana bidaltzera lagun batekin.

Eta kustodioak trata beza errukiz, horrelako egoera batean berak tratatua izatea nahiko lukeen bezala... Eta anaia ez-apaiz horiek ez dute inola ere ahalmenik penitentzia ezartzeko, hauxe besterik. Zoaz eta ez egin berriro bekatutik»” (MiG 11-20).

Otoitza

Zera da elkarte bat:
elkarrekin otoitz egiten duen pertsona-talde bat,
baina elkarrekin ere hitz egiten dutenak;
elkarrekin barre egiten eta mesedeak trukutzen dituztenak;
txantxetan ari dira elkarrekin,
eta elkarrekin serio daude;
batzuetan ez daude ados,
baina gaizkinahirik gabe,
batzuetan norberarekin egoten den bezala,
desadostasun arraro hori erabiliz
ohiko akordioa beti indartzeko.

Elkarrengandik zerbait ikasten dute
edo elkarri irakasten diote.
Faltan botatzen dituzte, penaz, kanpoan daudenak.
Pozez hartzen dituzte iristen direnak.
Horrelako edo bestelako adierazpenak egiten dituzte,
elkar maite dutenen bihotzeko txinpartak,
aurpegian adierazitakoak,
mihiaz, begietan,
samurtasunezko mila keinuz.
Eta elkarrekin prestatzen dituzte etxeko jakiak,
arimek bat egiten duten tokia
eta non batzuk, azkenean, bat besterik ez diren.

San Agustin

Gutuneko azken hitzak

Lehen maitasuna ez da inoiz hiltzen. Sugarrak itzali ditzakezu, baina ez sua.

(Bonnie Tyler, musikagile eta abeslaria).

2023ko otsaileko eguneroko Ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate erreferentzia guztiak:

1 Mk 6, 1-6	7 Mk 7, 1-13	13 Mk 8, 11-13	19 Mt 5, 38-48	25 Lk 5,27-32
2 Lk 2,22-32	8 Mk 7, 14-23	14 Lk 10, 1-9	20 Mk 9, 14-29	26 Mt 4,1-11
3.Mk 6, 14-29	9 Mk 7, 24-30	15 Mk 8, 22-26	21 Mk 9, 30-37	27 Mt 25,31-46
4 Mk 6, 30-34	10 Mk 7,31-37	16 Mk 8,27-33	22 Mt 6,1-6.16-18	28 Mt 6,7-15
5 Mt 5,13-16	11 Mk 8, 1-10	17 Mk 8, 34-9,1	23 Lk 9,22-25	
6 Mk 6, 53-56	12 Mt 5,20-22.27-28.33-37	18 Mk 9, 2-13	24 Mt 9,14-15	

Geure web gunea bisitatu

www.asissarea.org



Asis Sarea

646 21 48 96

Otsaileko otoitza hilaren
23an izango da.